

XaguArtea

2012ko abuztuaren 31a

Xagun aldizkaria

BEREZIA

Andramari festak 2012



Andramari arratsaldean 30 urtetik beherako herritarrek mendean hartu zituzten handik gorakoak herri kirol saioan.



Ume eta gaztetxoek tirolata arrakastatsua izan zen.



Maitere Telleria izan zen pregoilari Liztormendiren izenean.



Umeek benetan jaialdi dotorea eman zuten Andramari bezpera arratsaldean. Nahiko dantza eta antzerki izan zen.



Sagardo eta txekorraren festaren aurretik, aldarrikapena.



Otatzako Joxemari Muñoa iritsi zen lehenengo Goikoetxera.



Giro ederrarekin eta majo nekatuta iritsi ziren herriko txirrindulariak Goikoetxeko malden burura. Bejondeizuela!



Sokatiran oraindik zaharrenak gehiago dira. Agian pisuak ere badu zerikusirik.



Txorrotxa zegoen trontza.



Hanka-aire ederra erakutsi zuten adinean aurrera doazenek.



Eneko Arzelusek irabazi du aurten ere pelotan.



Zein den zein ezagutzen ere badira lanak. Dotore denak!



Xahar kuadrila bat festarako gogoz etorri zen herrira.



Hegazkineko tripulazioa, eskoziarra, medikua. Hau duk hau!



80ko hamarkadako kirol estiloan etorri ziren batzuk.



San Roke eguerdian bero ederrarekin egin zuten aurtengo dantza-soka.



Sukaldean, txirrinduan eta astoan ere bai.



Sugea bezala kiribiltzen da dantzarien soka.



Giro ederrean, 300 lagun elkartu ginen herri-afarian plazan.



Herritarrek elkartzeko eta tertuliarako, lagun ona da gazta.



Ardo ona eta gazta hobea. Aurten ere gustura jan zuen jendeak.